

	<p style="text-align: center;">Bihotzez Protección de Datos Personales www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika</p>	Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 1 de 6
---	--	---

Datuen Babeserako Oinarrizko Informazioa	
Erantzulea	Bihotzez - Sortzetiko Kardiopatiien Elkarte (I.F.Z.: G95663639)
Helburuak	<p>Gure zerbitzuak eskaini eta kudeatzea, sortzetiko kardiopatiak dituzten pertsonen eta euren familien bizitza hobetzeko.</p> <p>Bihotzez Elkarteak antolatutako jardueri buruz informatzea; jarduerak antolatzea eta zabaltzea. Elkartearen zerbitzuekin lotutako informazio-komunikazioak bidaltzea.</p> <p>Webguneen eta gure sare sozialen kudeaketa eta erabilpenaren analisiak egitea.</p>
Legitimazioa	<p>Datuen tratamenduaren beharra (“kontratu-harremana” RGPD 6.1.b art.)</p> <p>Interesdunaren adostasuna (RGPD 6.1.a art.)</p> <p>Bihotzez Elkarteak eduki lezakeen legezko interesa (RGPD 6.1.f art.)</p>
Hartzaileak	Oro har, ez da aurreikusten hirugarrenei datuak komunikatzea, legezko betebeharrak edo kasu espezifikoak izan ezik (zerbitzuaren faseren batean esku har dezaketen elkarteko laguntzaile zuzenei).
Eskubideak	Datuen babeserako zure eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Bihotzez Elkarte. Zarategi Pasealekua, 100 - Txara Eraikina, 1, 20015 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa), posta-elektronikoa: info@bihotzez.org edo 683629218 telefono zenbakian.

Pribatutasun Politika eta Datu Pertsonalen Babesa

1. Tratamenduaren Erantzulea

“**Tratamenduaren Erantzulea**” Bihotzez - Sortzetiko Kardiopatiien Elkarte da, aurrerantzean “**Bihotzez Elkarte**” edo “**elkarte**”.

I.F.Z.: G95663639

Helbidea: Zarategi Pasealekua, 100 - Txara Eraikina, 1

Herria: 20015 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)

Telefono zenbakia: 683629218

Helbide elektronikoa: info@bihotzez.org

2. Indarrean dagoen legeria

Bihotzez Elkarteak egiten dituen datu-tratamenduei aplikatu behar zaien oinarrizko araudia:

- a) 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (“RGPD”).
- b) Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (“LOPDGDD”).
- c) Arau osagarriak eta garapen-arauak.

	<p style="text-align: center;">Bihotzez Protección de Datos Personales www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika</p>	Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 2 de 6
---	--	---

3. Webguneak eta sare sozialetako kanalak

Bihotzez Elkartearen webgune ofiziala www.bihotzez.org da eta elkarteak sare sozialetan dituen kanal ofizialak hauek dira:

Facebook: <https://www.facebook.com/Bihotzez/>

X (Twitter): https://twitter.com/bihotzez_bihotz?lang=es

Instagram: https://www.instagram.com/bihotzez_elkartea/

YouTube: <https://www.youtube.com/channel/UCKVESUsEd19DwETWp2uQLdQ>

Pribatutasun Politika honen ondorioetako, aurrerantzean Bihotzez Elkartea webgune ofizialari, egon daitezkeen aplikazioei eta elkartearen sare sozialetako kanal ofizialei **“webgunea”** deituko zaie, kontrakoa zehazten denean izan ezik.

4. Helburuak eta Legitimaziorako Oinarri Juridikoak

Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, erabiltzaileei jakinarazten zaie datu pertsonalak Bihotzez Elkartearen webgune edo sare sozialen bitartez (posta elektronikoa bidez, inprimakien bidez, etab.) edo horien erabileraren ondorioz sortutakoak, Bihotzez Elkartearen tratamendu sistemetan sartu ahal izango direla.

Bihotzez Elkartearen bidez egin daitezkeen datu-tratamenduen helburuak honako hauek dira:

- a. Bihotzez Elkartearen zerbitzuak eskaini eta kudeatzea, sortzetiko kardiopatiak dituzten pertsonen eta euren familien bizitza hobetzeko.

Legitimazio-oinarri nagusia: Datuen tratamenduaren beharra (“kontratu-harremana” RGPD 6.1.b art.) gure zerbitzuak kudeatzeko.

- b. Interesdunekin harremana mantentzea, egindako kontsultei erantzutea eta eskaerei erantzuna ematea.

Legitimazio-oinarri nagusia: Interesdunaren adostasuna (RGPD 6.1.a art.)

- c. Bihotzez Elkarteak kudeatutako jardueri buruz eta elkarteak parte hartzen duten jardueri buruz informatzea eta zabalkuntza ematea; elkartearen webgunearen kudeaketa eta erabilpenaren analisia egitea; Bihotzez Elkartearekin zerikusia duen jarduerekin eta elkarteari lotutako informazio-komunikazioak bidaltzea; Bihotzez Elkarteak kudeatzen eta parte hartzen dituen jardueraz eta ekimenetaz informatzea, baita hauek antolatzea eta zabaltea ere.

Legitimazio-oinarri nagusia: Tramenduaren Erantzulearen legezko interesa (RGPD 6.1.f art.)

5. Kontserbazio epea

Emandako datu pertsonalak, hauek bildu diren helburuak betetzeko, helburuak ekar ditzaketen erantzukizunak zehazteko eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak (kontabilitatekoa, fiskala, etab.) ezartzen dituen aldiaren gordeko dira.

6. Sekretu eginbeharra

Bihotzez Elkartea erabiltzaileen pribatutasunarekin eta datuen babesarekin konprometitu dago eta hauen tratamendua isilpean eta araudia betez egingo da. Era berean, datu pertsonalak deskribatutako

	<p style="text-align: center;">Bihotzez Protección de Datos Personales</p> <p style="text-align: center;">www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika</p>	<p style="text-align: right;">Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 3 de 6</p>
---	--	---

helburuetarako baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie beste inori emango, zuk berriaz eta idatziz eskatzen ez baduzu. Oro har, Bihotzez Elkarteak ez die daturik komunikatuko hirugarrenei, legezko betebeharra ez bada. Hala ere, gerta daiteke datu jakin batzuk hirugarrenei jakinaraztea beharrezkoa izatea zuk eskatutako zerbitzuak kudeatzeko (adibidez, datuak jakinaraztea elkarteko kolaboratzaile zuzenei, interesdunak parte hartzen duen ikerketa, proiektu edo zerbitzuren batean esku har badezakete). Kasu horietan, Bihotzez Elkarteak datuak jakinarazi eta/edo transferitu ahal izango dizkie hirugarren horiei, eta datu horiek, nolana ere, Bihotzez Elkarteak dituen konfidentzialtasun-betebehar berberak bete beharko dituzte, eta, betiere, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete beharko dute.

Bihotzez Elkarteko langile edo kolaboratzaileei berriaz jakinarazi zaie sekretu profesionala gorde behar dutela.

7. Datu pertsonalak biltzea

Bihotzez Elkarteak ez dio erabiltzaileari datu pertsonalak emateko eskatzen bere webgunean sartzeko; alabaina, hainbat eginkizun aurrera eramateko ezinbestekoa izango da erabiltzaileak datu pertsonalak ematea (adibidez, harremanetarako), batez ere identifikatzeko eta harremanetarako datuak. Erabiltzaileak era askean eta borondatez emango ditu bere datuak. Bihotzez Elkarteak erabiltzaileak eskatutako zerbitzua jasotzeko beharrezkoa den informazio pertsonala baino ez du eskatuko.

Webgune honetan edozein eratako edukiak (datuak, testuak, bideoak, soinua, argazkiak, grafikoak, mezuak edo bestelako materiala) txertatzen dituen erabiltzaileak adierazi eta bermatu behar du hemen adierazitako baldintzen eta indarrean dagoen legediaren arabera egingo duela. Hirugarrenen datu pertsonalak gehitzen dituen erabiltzaileak adierazi behar du pertsona horien baimena daukala datuak argitaratzeko.

Erabiltzailearen arduraren eta beharra izango da emandako datuen zehaztasuna, zuzentasuna eta egiazkotasuna bermatzea eta, behar den kasuetan, datu hauek eguneratzea. Bihotzez Elkarteak ez du honen inguruko erantzukizunik hartuko bere gainean. Erabiltzailea bera izango da, horrenbestez, ematen dituen datuekin eragindako kalteen erantzule bakarra. Webguneko formularioetan nahitaezkoztat jotako eremuak ez betetzearen edo oker betetzearen ondorioz, Tratamenduaren Erantzuleak ezin izango dio erantzun erabiltzailearen eskaerari.

Tratamenduaren Erantzuleak datu pertsonalak modu egokian jasoko ditu, bere webgunean jasotako helburuen, erabileren, zerbitzuen eta/edo prestazioen arabera, modu zehatzean, esplizituan eta legitimoan; beraz, ez dira inola ere erabiliko iruzurrezko bitartekoak, bidegabeak, legez kontrakoak edo erabiltzaileen eskubide legitimoak arriskuan jartzen dituztenak.

Webgune honen bitartez informazioa bidali behar bada, Bihotzez Elkarteak emandako zerbitzuak edo eskeinitako aplikazioak erabili nahi badira ezinbestekoa da honako pribatutasun politika hau, cookie politika eta webgunearen baldintza orokorrak espresuki onartzea.

8. Adin-gabekoen datuak biltzea

Bihotzez Elkarteak adingabeen datuak tratu ditzake. Kasu hauetan, Bihotzez Elkarteak guraso edo tutoreen adostasuna eskatuko du datu pertsonalak jaso eta tratatzeko.

Bihotzez Elkarteak erabiltzaileei gomendatzen die kontrol-agintariak haurren eta gazteen datu pertsonalak babesteko garatu dituzten materialak kontsultatzeko.

Informazio hau (gomendioak, teknologia berriak erabiltzeko eskuliburuak, hezkuntza-bideoak, etab.) eskuragarri dago Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren webgunean:

http://www.avpd.euskadi.eus/s04-5249/es/contenidos/informacion/publicaciones_avpd/es_def/index.shtml#tab_item2063

	<p style="text-align: center;">Bihotzez Protección de Datos Personales www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika</p>	<p style="text-align: right;">Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 4 de 6</p>
---	--	---

eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunean:

<http://tudecideseninternet.es/aepd/>

9. Enplegu-eskatzaileak

Webgune, formulario, posta arrunta, posta elektronikoa edo antzeko mekanismoen bidez curriculum vitae aurkezten duen erabiltzaileari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Bihotzez Elkartearen datuen tratamendu-sisteman sartuko direla. Eskatzailearen datuak erabili ahal izango dira etorkizunean Bihotzez Elkartearen langileak hautatzeko prozesuetan parte har dezaten. Era berean, bere datuak Bihotzez Elkartearen hautaketa-prozesua egiteko kontratatu dezakeen hirugarren enpresa bati komunikatuak izan daitezke.

10. Sare sozialetarako eta web kanaletarako estekak

Webgune honek sare sozialetarako eta kanpoko webgune eta web-kanaletarako estekak eskaini ditzake (esate baterako, besteak beste, Facebook, Instagram, X (Twitter), YouTube, e.a.). Bihotzez Elkartearen ez du bere gain hartzen estekatutako gune horien gaineko inongo erantzukizunik. Webgune honetan kokatutako esteketatik edo beste edozein modutan Bihotzez Elkartearekin zerikusia duten sare sozialetan eta kanpoko webgune eta web-kanaletan sartzen den erabiltzaileari alde aurretik eta berriaz jakinarazten diogu erabilera-baldintzak, pribatutasun-politikak, cookieen politikak eta beste edozein baldintza eta/edo araudi sare sozial eta webgune eta web-kanal horien arduradunen menpe daudela, inoiz ez Bihotzez Elkartearen menpe.

11. Bihotzez Elkartearen presentzia Sare Sozialetan

Bihotzez Elkartearen Sare Sozial desberdinetan profilak ditu, elkartearekin edo haren jarduerarekin lotutako produktuak, zerbitzuak eta jarduerak zabaltzeko helburu nagusiarekin. Kanal horien bidez eskaintzen diren argitalpenak orientagarriak izango dira.

Erabiltzaileak bere sare sozialetan duen profilekin Bihotzez Elkartearen profiletan erregistratzean, bereriazko baimena ematen dio elkarteari bere datu pertsonalak Pribatutasun Politika honen arabera tratatzeko.

Erabiltzaileak sare sozialen bidez borondatez emandako informazioa eta datu pertsonalak Bihotzez Elkartearen erabiltzailearekin harremanetan jartzeko, erabiltzaileak egiten dituen kontsultei eta eskaerei erantzuteko, elkartearekin edo haren jarduerarekin lotutako informazio eta komunikazioak bidaltzeko eta lehiaketak, zozketak, gonbidapenak eta antzeko jarduerak kudeatzeko erabili daitezke. Era berean, erabiltzaileak Bihotzez Elkarteari eta haren argitalpenei buruz duen iritzia edo balorazioa ezagutzeko eta, oro har, Bihotzez Elkartearen sare sozialetan duen presentzia kudeatzeko erabiliko da.

Erabiltzaileei jakinarazten zaie Bihotzez Elkartearen sare sozialen bidez argitaratzen den informazioa eta edukia (datuak, testuak, bideoak, soinua, argazkiak, grafikoak, iruzkinak, mezuak edo beste material bat) sare sozialen beste erabiltzaile batzuen esku gera daitezkeela (hala badagokio, datu pertsonalak barne). Hirugarrenen datu pertsonalak erabiltzen dituen erabiltzaileak nahitaez eskatu behar du datu horiek tratatzeko baimena. Sare sozial bakoitzaren erabiltzaile-profila konfiguratzeko denetik, erabiltzaileak kasu bakoitzean publiko egin nahi duen informazioa konfiguratu dezake, eman dituen baimenak ikusi, ezabatu edo desaktibatu, eta bere argitalpenak kudeatu, bere irizpidearen eta sare sozial bakoitza erabiltzeko arauen arabera.

Erabiltzailearen argitalpenek indarrean dagoen legedia, sare sozialek ezarritako pribatutasun politikak eta erabilera arauak eta Bihotzez Elkartearen pribatutasun politika bete beharko ditu. Honen erantzule bakarra erabiltzailea izango da. OhanaBarefotek ez du inolako erantzukizunik hartzen bere gain erabiltzaile bakoitzak egiten dituen argitalpenei dagokienez. Bihotzez Elkartearen alde bakarrez eta alde aurretik jakinarazi gabe ezabatuko ditu indarrean dagoen legedia, erabilera arauak eta ezarritako pribatutasun politikak urratzen dituzten edukia, edo desegokitzat jotzen dituenak.

	<p style="text-align: center;">Bihotzez Protección de Datos Personales www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika</p>	<p style="text-align: right;">Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 5 de 6</p>
---	---	---

Bihotzez Elkarteak Facebook, Instagram, X (Twitter) eta beste sare sozial batzuetako profilak jarraitzen ditu, baina horrek ez du esan nahi horiekin inolako loturarik dagoenik.

Bihotzez Elkarteak beretzat gordetzen du bide honen bitartez jasotako mezu edo iruzkinei ez erantzuteko eskubidea. Bihotzez Elkarteak edozein unetan eta aldez aurretik abisatu gabe aldatu edo ezabatu ahal izango ditu bere sare sozialetan igorritako argiritan.

Jarraitzailea izatean edo sare sozialetan "gustatzen zait" sakatzean, onartzen duzu: 1) zure datu pertsonalak dagokion sare sozialaren pribatutasun politikaren inguruan tratatzea; 2) Bihotzez Elkarteak zure kontaktu zerrendan jasotako datuak eskuratzea; 3) elkarteak argitaratutako albisteak eta promozioak zure abisu eta jakinarazpenetan agertzea.

Erabiltzaileak Bihotzez Elkartearen sare sozialetako kanal ofizialak jarraitzeari utzi nahi badio, sare sozial bakoitzak horretarako ezarritako tresnak erabiliz egin behar du.

12. Trafiko-datuak

Bihotzez Elkartearen webguneak, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz, erabiltzailearen IP helbidea erregistratu dezake. Era horretan, gerora, datuak prozesatu ahal izango dira, esate baterako, ikusitako orrialdeen kopurua, bisiten kopurua eta web-orriko bisitarien jarduera eta erabilera-maiztasuna zein izan den aztertzeko.

Erabiltzaileari jakinarazten zaio Bihotzez Elkarteak bere IP helbidea tratatu dezakeela webgune honetan sartzen denean. Horrela, ez da beharrezkoa izango informazio hau ematea webgunean sartzen den bakoitzean.

Aipatutako helburua lortzeko, Google Analytics edo antzeko tresnekin ari da webgune hau neurtzen eta aztertzen. Aztertzaileak orrialdeetako markak eta cookieak erabili ahal izango ditu, Bihotzez Elkartearen webguneko orrialdeetan gertatzen dena aztertu ahal izateko.

13. Segurtasun Neurriak

Bihotzez Elkarteak, bere tratamendu-sistemetan dauden datu pertsonalak erabiltzean, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe erabiltzea saihesteko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamendu neurriak hartuko ditu. Betiere, teknologia-egoera, bildutako datuen izaera eta horiek izan ditzaketen arriskuak kontuan izanda; bai giza jardunak eragindakoak, bai ingurune fisiko zein naturalak eragindakoak. Horretarako, aintzat hartuko du datu pertsonalak babesteko indarrean den legedia. Nolanahi ere, erabiltzaileei argi adieraziko zaie segurtasun-neurri informatikoak ez direla erasoezinak, eta ondorioz, gerta litezkeela legez kanpoko esku-hartze edo esku-hartze bidegabeak, baina ez liratekeela Bihotzez Elkartearen erantzukizunpekoak.

Erabiltzailearen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko, webgune honek konexio seguruko geruzen protokoloetan (https) oinarritutako enkriptazio-teknologia erabiltzen du, nabigazioa ahalik eta seguruena izan dadin.

14. Segurtasun urraketa

Erabiltzaileak ahalik eta azkarren jakinarazi beharko dio Tratamenduaren Erantzuleari edozein intzidentzia, segurtasun urraketa edo ez beharrezko sarbidea egon dela detektatuz gero. Jakinarazpena egiteko 683629218 telefono zenbakia edo info@bihotzez.org helbide elektronikoa erabili ditzake.

15. Interesdunen eskubideak

	Bihotzez Protección de Datos Personales www.bihotzez.org Webgunerako Pribatutasun Politika	Edición: 2018/05 Revisión: 2023/09 Versión: 2.0 Ref.: WEB-002 Página 6 de 6
---	---	---

Zure datuak ikustea, zuzentzea, ezerezteza, tratamendua mugatzea, tratamenduaren aurka egitea eta portabilitatea eska dezakezu, baita zure baimena ezeztatu eta gai honi buruzko bestelako edozein eskari egin ere. Horretarako, idatzi bat bidali beharko diozu Tratamenduaren Erantzuleari, helbide honetara: Bihotzez. Zarategi Pasealekua, 100 - Txara Eraikina, 1, 20015 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa), telefonoa: 683629218 edo, bestela, info@bihotzez.org helbide elektronikoaren bitartez.

Eskaerarekin batera, interesdunaren nortasun agiri baten kopia bidali beharko da. Eskaera lege-ordezkarri moduan egiten baduzu, berriz, nortasun agiriaren kopia ez ezik, ordezkaritza horren egiaztagiria ere bidali beharko duzu.

Eskariari emandako erabakiarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol aginte eskudunera jo dezakezu, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.aepd.es).

16. Indarraldia eta aldaketak

Bihotzez Elkarteak beretzat gordetzen du bere pribatutasun-politika aldatzeko eskubidea, bai ordura arteko irizpideak aldatu dituelako, bai lege- edo jurisprudentzia-aldaketak izan direlako. Bihotzez Elkarteak aldaketaren bat eginez gero, ordea, testu berria webgune berean argitaratuko du, eta erabiltzailea berehala ohartuko da. Dena den, erabiltzailea webgunean sartzen den unean bertan aurreikusita dauden arauak arautuko dute erabiltzaileekiko harremana. Horregatik, Bihotzez Elkarteak gomendatzen dizu aldian-aldian sartzeko pribatutasun-politika honetara.

17. Jurisdikzioa

Bihotzez Elkarte eta erabiltzailearen artean sortutako harremana, hain zuzen, aplikatzeko modukoa den legediari eta eskumena daukan jurisdikzioari buruz indarrean den araudian xedatutakoak arautuko du. Nolanahi ere, araudiak aurreikusten badu aldeek eskumen baten menpe jarri behar dutela, Bihotzez Elkarte eta erabiltzailea, dagokien beste zeinahi eskumeni espresuki uko eginda, Donostiako (Gipuzkoa) Epaitegi eta Auzitegien menpe jarriko dira.

Erabiltzaileak ez baditu baldintza hauek betetzen edo webgunean azaltzen diren edukien okerreko erabilera egiten badu Bihotzez Elkarteak Zuzenbideak ematen dizkion neurri zibilak eta penalak (ekonomikoak barne) hartuko ditu ez-betetze hauek zigortzeko.